

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRA

**2016ko ekainaren 3ko ebazpena, zeinaren bitartez "Ekin txeketa" laguntza ekonomikoen udal programaren oinarriak onetsi direla argitara ematen baita, eta laguntza horien 2016 deialdi publikoa egiten**

2016ko maiatzaren 27an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak enpresa txikiei Gasteizko coworking espazio edo enpresa zentro pribatuetan lehenengoz kokatzeko eta errotzeko erraztasunak ematera zuzendutako "Ekin txeketa" udal laguntzen programaren deialdi publikoa arautuko duten oinarriak. Orobat onetsi zuen deialdi publikoa egitea, ALHAOn argitaratuz.

Horrenbestez, argitara ematen da "Ekin txeketa" udal laguntzen programaren deialdia, oinarri hauekin:

#### **1. oinarria. Xedea eta aplikazio eremua**

Enpresa txiki sortu berriei Gasteizko udalerriko coworking espazio pribatuetan lehenengoz kokatzeko eta errotzeko erraztasunak ematera zuzendutako laguntzak esleitzeko, elkarren arteko lehia baliatuz, baldintzak finkatzea dute xede oinarri hauek.

#### **2. oinarria. Enpresa eta pertsona onuradunen betebeharrak**

Pertsona fisiko nahiz juridiko pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun, edozein delarik ere beren forma juridikoa, irabazizko jarduera ekonomiko bat badute eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Egoitza eta helbide fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea.

Jarduera Gasteizko Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea, hiru urtetik beherako antzinasunarekin.

Jarduera zuzenean garatzea, alokairu erregimenean, 3. oinarrian adierazten diren betebeharrak betetzen dituen eta Gasteizko udalerrian kokatuta dagoen zentro pribatu batean.

Gehienez hiru langile izatea.

Jabetzan lokalik ez edukitzea, jarduera garatzeko.

Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresei lotuak ez egotea, eta halakoek ehuneko 25etik gorako partaidetza ez edukitzea bertan.

Gehienez diruz lagundu daitekeen urtebeteko aldirako laguntza ez jaso izana 2015eko deialdian.

Garatu nahi den jardueraren enpresa-plan bideragarria aurkeztea (jardueraren azalpena, zein merkatutara zuzendua dagoen, inbertsioaren eta enplegu-sorkuntzaren aurreikuspena, finantzaketa, aurreikusten diren finantza-laukiak), II. eranskinean ematen den ereduaren arabera.

#### **3. oinarria. Kokalekuaren betebeharrak**

Diru-laguntzaren eskatzaileak jarduera garatzen duen Gasteizko coworking espazio edo enpresa zentroaren titularrak betebeharrak bete beharko ditu:

Egoitza eta helbide fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea.

Jarduera ekonomikoa zuzenean Gasteizko udalerrian garatzea.

Coworking espazioa edo enpresa zentroa alokairuan uzten duen enpresaren jarduera nagusia Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafe hauetan ez sartzea:

861.2 taldea: lokal industrialen alokairua eta bestelako alokairuak, beste atal batzuetan jasotzen ez direnak.

799 taldea: Finantza jarduerekin, jarduera juridikoekin, aseguruekin eta alokairuekin zerikusia duten beste profesional batzuk, beste atal batzuetan jasotzen ez direnak.

Oro har, jarduera nagusia zehazteko horretarako erabiltzen den azalera erabilgarria hartuko da aintzat.

Coworking espazio edo enpresa zentroetan lekua hartzen duten enpresei eskaintzeko zerbitzu erantsi sorta bat edukitzea.

Gasteiz hiriko enpresa zentroyen sarean antolatzen diren informazio eta prestakuntza jardunaldietan lagundu eta parte hartzea, eta aipatutako espazioetan lekua hartua duten enpresen artean horien zabalkundea egitea.

Titulartasun pribatuko coworking espazio edo enpresa zentroa izatea, bere funtzionamendurako finantzaketa publikorik jasotzen ez duena.

#### **4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak**

2. oinarrian adierazitako betebeharrak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko pribatuak jaso ahal izango dute deialdi honetan arautzen den laguntza, 3. oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituen coworking espazio edo enpresa zentro batean lehenengoz kokatzen direlarik.

#### **5. oinarria. Diru-laguntzaren gai izan daitezkeen gastuak**

Alokairu gisa ordaintzen diren zenbateko garbiak joko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat, 2015eko urriaren 1.etik 2016ko irailaren 30era bitarteko aldiari dagozkielarik.

Ez dira diruz lagunduko honelako gastuak:

Komunitate gastuak, edo alokairuaz beste edozein gastu, espazioen jabeek maizterrei galdatzen dizkietenak.

Kontratu-baldintzak betetzearen berme gisa eratzen diren fidantzak.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuei dagozkien zergak.

Hornikuntza (argia, ura, telefonoa eta antzekoak).

Zerbitzu osagarriak (garbiketa, aseguruak, administrazio, telefonia eta informatika zerbitzuak, internet, jendea hartu eta harrera egitea, zaintza, agiriak gordetzea eta antzekoak).

#### **6. oinarria. Balioespen-irizpideak**

1. Enpresa-planaren kalitate teknikoa: 40 puntu gehienez

Proiektuaren definizioa eta garapen-maila balioetsiko dira atal honetan, alderdi hauek kontuan harturik: talde sustatzailearen konpromiso-maila, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa, produktuaren kalitatea, analisia eta garapena, eta beste.

2. Talde sustatzailearen gaitasuna: 40 puntu gehienez

Sustatzaileen prestakuntza eta esperientzia balioetsiko dira atal honetan.

3. Egindako inbertsioak: 10 puntu gehienez

Enpresa abian jartzeko hasierako inbertsio-plana balioetsiko da atal honetan.

4. Sortutako enplegua: 10 puntu gehienez

Autoenplegua eta kontratatutako langileak balioetsiko dira atal honetan.

Proiektuak diru-laguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko dira.

#### **7. oinarria. Zenbatekoa**

Diru-laguntza lokalaren alokairu garbiaren ehuneko 50ekoa izango da, eta enpresa onuradun bakoitzeko gehienez 1.500,00 euro emango dira.

Diru-laguntzaren gehienezko aldia urtebetekoa izango da.

2015eko deialdian urtebetetik beherako egonaldiako diru-laguntza lortu zuten pertsona fisiko eta juridiko pribatuek aukera izango dute deialdira aurkezteko, diruz lagundu daitekeen urtebeteko gehienezko aldia osatu arteko alokairu-hilabeteei dagokien dokumentazioa aurkeztuz.

Baldintzak betetzen dituztelarik bi deialdietara aurkezten diren pertsona fisiko eta juridiko pribatu horiei guztira ematen zaien diru-laguntzak ezingo du gaingitu, inolaz ere, enpresa bakoitzeko ezarrita dagoen 1.500,00 euroko gehienezko muga.

#### **8. oinarria. Ordaintzeko modua**

Dena batera ordainduko da diru-laguntza, deialdia ebazten delarik.

#### **9. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak**

Pertsona nahiz enpresa onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzailletza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoek mende ere.

Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren eskura jartzea.

Diruz lagundutako gastuak finantzatzeko beste laguntza edo diru-laguntzarik eskatu nahiz eskuratzuz gero, organo emaileari jakinaraztea.

Diru-laguntza eman ondoren, zertarako eman den, horretara bideratzea ekonomi jarduera gutxienez bi urtez. Adierazitako epe hori igaro aurretik jarduera bertan behar uzten bada, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio udalari, eta eman eta ordaindutako diru-laguntza osorik edo horren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik bi urteko epe hori betetzeko falta den denborarekiko proportzioan diru-laguntza eman zen egunetik kontatuta.

Salbuespen gisa, ez da jasotako diru-laguntza itzultzeko eskatuko jabeak gaixotasun larria duelako edo hil egin delako ixten bada negozioa.

Ekonomia Sustapenerako Sailaren jardueren baitan hala eskatzen duten etorkizuneko ekintzaileei beren proiektua ezagutzera emateko konpromisoa beren gain hartzea.

#### **10. oinarria. Aurrekontu-zuzkidura**

2016ko udal aurrekontuetako 08 21 4331 489 84 "Ekin txekoa" partidaren kontura ordainduko dira deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak. 15.000 eurokoa da partida horren zuzkidura.

Elkarren arteko lehia baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Aurrekontu-kreditua urri geratzen bada, modu proportzionalen murriztuko dira diru-laguntza guztiak, baliagarri dagoen kreditura moldatzeko.

Nolanahi ere, enpresa eta urte bakoitzeko laguntza-dosier bakarra tramitatuko da oinarri hauetan ageri diren kontzeptuengatik.

#### **11. oinarria. Bestelako laguntza eta diru-laguntzekiko bateraezintasuna**

Programa honetan aurreikusten diren laguntzak ezingo zaizkio gehitu gastu beretarako bestelako laguntzei.

#### **12. oinarria. Nahitaezko agiriak**

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak eskuratzeko eskabideei:

Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena (I. eranskina).

Pertsona fisikoek: nortasun agiriaren fotokopia.

Pertsona juridikoek:

IFZren fotokopia.

Enpresaren eraketa eskrituren fotokopia.

Ordezkatze-ahalmenaren fotokopia.

Ordezkatze-ahalmena duen pertsonaren nortasun-agiria.

Soldatapeko langilerik izanez gero, azken hilabeteko TC2 agiria.

Soldatapeko langilerik ez badu, autonomo gisa azken hilean egindako ordainketaren ordainagiria.

Enpresa proiektua, honako hauek barne: jardueraren oinarrizko datuak azaltzen dituen txostena, sustatzaileen curriculumak eta ekonomi eta merkataritza bideragarritasunaren azterlana. (II. eranskina)

Coworking espazio edo enpresa zentroak eta laguntza eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak sinatutako alokairu kontratua.

Diruz lagundutako alokairuak ordaindu direla erakusten duten egiaztagiria.

Ofizios egiaztatuko da eskabidea egiten duen enpresa egunean dagoen Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez. Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalarikiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundirekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Ez da onartuko enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi gera dadin nahikoa daturik jasotzen ez duen banku-egiaztagiririk. Oro har, ez dira egiaztagiri gisa onartuko internet bidez eskuratutakoak, banku-erakundeak balioztatuta edo zigilatuta ez badaude.

Jarduera burutu eta justifikatzeko epea amaitu delarik gastuen zati bat bakarrik ordaindu bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko zaio, kobratzeko eskubidea galtzea dela eta.

#### **13. oinarria. Eskabideak aurkeztea**

2016ko irailaren 1.ean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta irailaren 30ean bukatuko.

Deialdi honen I. eranskinetako ereduak erabiliz aurkeztu beharko dira laguntza-eskabideak.

Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batean aurkeztu behar da eskabidea, arauzko dokumentazioarekin batera. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Eskabidea aurkezten delarik, oinarri hauek onartzen direla esan nahiko du.

#### **14. oinarria. Akatsak zuzentzea**

Diru-laguntza eskabideek ez badituzte oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen, edo bertan galdatutako agiriak ez baldin bazaizkie gehitzen, eskatzaileei 10 eguneko epea emango zaie akats eta okerrak konpondu edo falta diren beharrezko agiriak ekar ditzaten, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua ildotik. Halaber ohartaraziko zaie hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitakotzat joko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, eta aipatutako legearen 42.1 artikulua aurreikusitako ondorioak izango dituela horrek.

#### **15. oinarria. Prozedura**

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Hautatze eta jarraipen batzorde bat eratuko da horretarako, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zuzendariak eta Enpresei Laguntzeko Zerbitzuko eta Merkataritza Zerbitzuko buruek osatua. Batzorde hori arduratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz, Enpresa Zerbitzuko teknikariek txostena egin ondoren.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik. Hortaz, alderatu egingo dira aurkezten diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 6. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, hautatze eta jarraipen batzordearen proposamenaren ildotik.

Ebazpenak agortu egingo du administrazio-bidea, eta horren kontra, aukeran, berraztertze-koerrekurtsioa aurkeztu ahal izango da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluan xedatutakoaren ildotik, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen ildotik.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59, 6, b) eta 60. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, laguntza deialdi honetako ebazpenak ALHAOn argitaratuz jakinaraziko dira.

#### **16. oinarria. Publizitatea**

Deialdia ebatzi ondoren, ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da emandako diru-laguntzen zerrenda, enpresa onuradunak, zenbatekoak eta xedea adierazten direlarik.

#### **17. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea**

Gasteizko Udalak, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren bitartez, emandako laguntzak bertan aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol eta ebaluazio lanak egin ahal izango ditu, eta espresa onuradunek eskatzen zaien informazio osagarria eman beharko dute.

#### **18. oinarria. Diru-laguntzak aldatzea**

Diru-laguntzak emateko kontuan izandako baldintzak aldatzeak eman zireneko ebazpena aldatzea ekarri ahal izango du berekin, nahiz eta, nolana ere, oinarri hauetan ezarritako baldintzetara moldatu beharko den aldakuntza hori.

### 19. oinarria. Laguntzak itzultzea

Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira, baita diru-laguntza ordaintzen denetik sortutako interes legalak ere, laguntzen onuradun diren pertsona edo enpresek oinarri hauetan, emate ebazpenean nahiz aplikagarri suertatzen diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak urratzen badituzte; guztia ere, dena delako urraketaren ondorioz udalak bidera litzakeen bestelako ekintzak gorabehera.

Dagozkien ondorio legaletarako, itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira. Kudeaketa, kontrol edo ikuskatze lanetan diru-laguntza modu ezegokian eskuratu dela atzematen bada, edo oker erabiltzen ari dela, hala jasoko da dosierrean eta, horrenbestez, beharrezko diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

### 20. oinarria. Itzularazteko prozedura

Diru-laguntza itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko eskumena hura eman zuen organoak izango du.

Ofizios nahiz eskumena duen organoak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahal izango da prozedura.

Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio Udalak diru-laguntzaren onuradun den pertsona edo enpresari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzualdia eskainiko, egokitzen dituen alegazioak egin eta bidezkoztat jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez dituzan, 15 eguneko epean.

Alegazioak jasotzen direlarik nahiz halakorik jaso gabe igarotzen delarik epea, ebazpen arrazoitua emango du Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsioen berri adieraziko.

Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

Ebazpenean urraketaren bat izan dela adierazten bada, galdutzat joko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik. Borondatezko aldiko epeztat joko da epe hori.

Laguntza aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio, aplikatzekoak diren lege-araudiei jarraiki.

Laguntza itzularazteko prozedura arau-hauste administratibo baten ondorioz abiarazia bada, eskumena duen organori jakinaraziko zaio, aplikagarri den zigortze prozedurari ekin diezaion.

### 21. oinarria. Ordezko erregimena

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, baita arau-hauste, zigor eta ordezko erantzukizunei dagokienez ere, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza —2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zk.— hartuko da kontuan, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea ere.

### 22. oinarria. Indarrean jartzea

Diru-laguntzak emateko deialdi eta oinarri hauek ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean.

### 23. oinarria. Isilpekotasun klausula

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu, jo ezazu Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.

**I. eranskina: Eskabide-orria**

<http://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/es/72/25/57225.pdf>

**II. eranskina: Enpresa-proiektua**

Proiektuaren aurrekariak

Ideiaren jatorria eta bilakaera

Talde sustatzailea

Curriculum vitae zehatza

Sustatzaileek proiektuan duten inplikazioaren azalpena

Negozio-aukeraren ebaluazioa

Produktu edo zerbitzuaren deskribapena

Merkatuaren ezagutza

Bezero potentzialen ezaugarriak

Proiektuaren ingargune eta izan ditzakeen ahulezien balorazioa

Ekonomia- eta finantza-plana

Aurreikusitako inbertsioen estimazioa

Finantzaketa-iturriak

Diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena. Errentagarritasun-atalasearen kalkulua

Vitoria-Gasteizen, 2016ko ekainaren 3an

*Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*  
*LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI*